



HONDARTZAKO FUTBOL ARAUDIA 2024-2025

	BENJAMINAK LH 3-4	ALEBINAK LH 5-6
JOKALARI KOPURUA	6 + atezaina	
ALDAKETAK	Aldaketak atsedenaldietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, <u>gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da</u> , baina ez da aktan apuntatuko.	
JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke (luzapenak barne). ADI! Adibidez, <i>taldekideren batek 4 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 3 zati jokatu behar dituzte.</i>	
ATEZAINAK	Atezainak gehienez 2 zati joka ditzake atezain gisa. ADI! 4 zatiak joka ditzake, baina 2 atezain eta 2 jokolari moduan. Eta gogoratu kasu honetan, <i>beste taldekide guztiek 3 zati jokatu beharko dituztela.</i>	
IRAUPENA	10 minutuko 4 zati. (4 x 10)	
ATSEDENALDIAK	3 minutukoak.	
PARTIDUKO AZKEN EMAITZA	Partida guztiak lagunartekoak dira, beraz, golak ez dira zenbatuko.	Partidu amaierako golen arabera.
FALTAK	Falta guztiak zuzenekoak izango dira.	
“ZESIOA”	Taldekideren batek baloia bere atezainari hankarekin pasatzen badio eta honek eskuekin hartzen badu, zesioa zigortuko egingo da baina zeharkako falta adierazi ordez, kornerra adieraziko da .	
JOKOZ KANPOA	Jokoz kanpoa, area eta bere luzapenaren barruan bakarrik zigortuko da.	
ATEKO SAKEA	Ateko sakean, atera arte aurkariak bere zelai erdian itxaron beharko du. Hau da, ezingo da presio altua egin .	
ZIGORRAK	Txartelik ez badago ere, errespetu faltan aurrean edo gehiegizko joko-indarkeria emango balitz, epaileak 2 minutuko kanporaketa agindu dezake. Bitarte horretan, taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da. Jarrera desegoki hauek errepikatuko balira, epaileak behin-betiko kanporaketa agindu dezake. Ikusleen partetik ere jarrera desegokiak emango balira, epaileak partida bertan behera utzi dezake. Epaileak hala baderitzo, 2 minutuko kanporaketa agindu dezake eta txartel horia atera. Txartel gorria ateraz gero, jokalaria hori kanporatua izango da partida amaitu arte eta bere ordez beste jokalaria ordurarte gutxien jokatu duen taldekidea sartuko da 2 minutu beranduago. 2 minutuz jokalaria bat gutxiagorekin egon beharko dute.	
TXAPELKETA	Ez dago txapelketarik.	Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da.